

# BIZKAIERA ETA EUSKARA BATUA: ERITZI-IRITZI ETA NIRE-NERE LITERATUR TRADIZIOAN

Ibon SARASOLA

## Atarikoak

Ez dut uste inongo aurkikundea egitea denik euskara baturanzko bidean «galtzaile» gertatzen ari den euskalkia bizkaiera dela esatea. Begien bistan dagoen kontua da hori, eta behin eta berriro errepikatu dena, gainera. Zertzelada horren arrazioak ere nabarmenak dira. Alde batetik bazter (edo albo) euskalkia da bizkaiera. Bestetik, literatur bizkaierak pisu eta indar aski badaezpadakoa izan du azken mendeetan, 1800-1820ko loraldi bikaina eta 1890ez gerozko ekoizpena alde batera uzten baditugu.

Baina, horrekin batera, begien bistakoa da, gaur egun, hiztunen kopuruaren aldetik, sartaldeko euskalkiak duen pisua eta indarra. Eta hau euskara batuaren arazoan ezin ahaztuko kontua da. Nolanahi ere den, pisu hori taxutzerakoan, bada kontuak desitxuratuak atera dituenik, ikatza bere opilari gehiegi hurbildu duelako. Izan ere, euskara idatziari buruz ari garen neurrian, Gipuzkoako bizkaierazko hiztunak gipuzkeraren kontuan sartu behar dira, zeren, jakina denez, gipuzkera izan baita, Larramendiren garaiaz gero gutxienez, haien *high* hizkuntza-mota. Halaz guztiz ere, bizkaieraren pisua eta indarra, mugaz honaindiko Nafarroako eta Iparraldeko hiztunen multzoarekiko, handia —hitz leunez esateko— da.

Pisu eta indar hau dela eta, euskara batuan bizkaieraren «kuota» nabarmentzeko ahaleginak egin dira. Niri bederen erabat bidezkoak iruditzen zaizkit ahalegin horiek, hizkuntza gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik ez dela pentsatzen dudanez gero. Dena dela, behin baino gehiagotan, hizkuntz aurreiritzietan oin harturik eta egiazko bizkaierari —testuetakoari— buruzko behar adina argibideren faltaz, zenbait proposamen egin dira, euskara batuari oro-

har inongo mesederik egiten ez diotenak. Horietako biri buruz, *eritzi* eta *nire-ri* buruz, mintzatu nahi dut artikulu honetan.

Aurreko zenbait lanetan bezala, ematen ditudan argibideak K. Mitxelenaen *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko corpusetik atera ditut gehienbat, hori baita gaur egun gure literatur tradizioa aztertzeke dugun iturburu oso, aberats eta orekatuena.

### *Eretxi, eritzi, iritzi* literatur tradizioan.

Literatur tradizioan lehen agertzen den aldaera *eritxi* da, Fray Juan de Zumarraga durangarraren 1537ko gutunean: *ene eritxian oba da guarda ditean exilik*. Aldaera hau da, bestalde, \* *ereitzi*, antza danez (Mitxelena *FHV* 106) hitzaren etimologi forma denetik gertuen dagoena.

Iparraldeko literatura zaharrea *eritzi* aldaera erabiltzen da, batez ere *on eritzi*, *gaitz eritzi* eta kideko elkartuetan. Dena dela Leizarragak baditu elkarteta-mota horretaz bestaldeko erabilerak, aditz-balioaz eta «izena eman» adieran beti: *Litrakoek Barnabasi Iupiter eritzi, eta Pauli Mercurio* (Act 14, atariko laburpena), *Huna birjiná izorraturen da eta erdiren seme batez eta hari eritziaren zaio Emmanuel* (*Advert. \*\* ii v*), eta besteren bat. Aditz autonomo bezala XVIIgn. mendearen erdialdera desagertzen da *eritzi* Iparraldeko tradizioetik, eta beste aldaeren aztarnarik ez dago mugaz haraindiko testuetan. Nolanahi ere, azken urteotan hitz honen zenbait agerraldi aurki daitezke Iparraldean, izen-balioaz eta *iritzi* aldaeran. Horrela, Tournier-Lafitteren *Lexique Français-Basque*-n (1953), *opinion* sarreran «uste, ustego, ustekeria, aburu, iduripen, iritzi» ematen da, eta «Haize garbia» taldearen *Dictionnaire Basque pour tous* izeneko hiztegiaren bigarren liburukian (1975), sarrera berean «uste, aburu, iritzi». Eta orobat testuetan. Adibidez, ikusi dudun *Herria* aldizkariaren azken alean, 1990ko abenduaren 27koan, hauek irakurtzen dira: *zer iritzi (edo opinione) duzu «Irulegi Irratiaz»?*, D orrialdean, edo *bakoitzak eman baitezake bere iritzia nehor mindu gabe*, 6gn. orrialdean, J. Haritschelharrena bigarren hau.

Hegoaldean, Capanaga durangarrarengan aurkitzen dugu berriro hitza XVIIgn. mendearen erdialdean, hemen ere *eretxi* forman eta izen gisa: *letratuen eta iakitunen eretxian* (46. orr.). Harrez gero aldera hori izango da literatur bizkaieran gehien erabiliko dena 1970 arte, izen nahiz aditz balioaz: adizkiak alde batera utzirik, *eretxi*-ren 231 agerraldi aurkitu ditut 1750-1970 epean bizkaierazko testuetan. Euskalki honetako tradizioaz jarraituz, *eritxi* aldaera da bigarrena, 74 agerraldirekin; ondoren *iritxi* dator 41 agerraldirekin. Beste aldaerei dagokionez, *eritzi*-renak 10 aurkitu ditut, 6 P. Astarloarenak, eta 4 1950-1970 epeko testuetan; *iritzi*-renak 8 dira 1950 arte, baina ondoko 20 urteetan 17 agerraldi aurkitu ditut.


Gipuzkerazko testuei dagokionez *iritzi* da alde handiz gehien erabiltzen den aldaera: Otxoa da Arin-en Dotrinan (1713) hiru aldiz agertzen da (*pekatu dalako ustean edo iritxian* 141 orr.-an, etab.), eta 453 aldiz aurkitu dut XVIIgn. mendeko erdialdetik 1970 arte, gehienetan izen gisa; *eritzi* bi aldiz Mendibururengan,

hiru aldiz Azkueren *Ardi galdua*-n, eta behin Orixerengan eta Zaitegirengan. Azken bi hauek *iritzi* erabiltzen dute bestela. Gipuzkerazko tradizioetik at, Larramendiren jarraitzaile zen Hegiategi zuberotarrak eta Mirandek erabiltzen dute *iritzi*. Orobat Oskillaso bizkaitarrak *Kurloiak* liburuaren egin zuen bere erako euskara batuzko saioan. Aipagarria da halaber bizkaierazko idazleek, J.J. Mogelgandik hasita, *iritzi* erabili dutela gipuzkeraz idatzi dutenean.

Aldaera bakoitzaren pisua hobeki ikus dadin grafiko batean ezarri ditut bakoitzari dagozkion ehunekoak, 50 urteko epealdika. 1800az gerozko ehunekoak soilik ematen ditut, aurreko agerraldiak urriegiak baitira, eta beraz ez oso adierazgarriak. Bestalde, ez ditut kontuan izan K. Mitxelenaren testuak, Errenteriako irakasleak erruz erabiltzen baitzuen hitza, beti *iritzi* forman, eta zertzelada honek grafikoak desitxurako zituelako <sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Grafikoari dagozkion zifrak hauek dira:

	eretxi	eritxi	eritzi	iritxi	iritzi	guztira
1800-1850	48 27,6%	28 16,1%	6 3,4%	4 2,3%	88 50,6%	174 100%
1850-1900	45 28,5%	11 7,0%	0 0,0%	10 6,3%	92 58,2%	158 100%
1900-1950	99 37,7%	13 4,9%	3 1,1%	12 4,6%	136 51,7%	263 100%
1950-1970	29 11,6%	22 8,9%	7 2,8%	16 6,4%	175 70,3%	249 100%




Hurrengo grafikoan bizkaierazko testuetan gertatzen diren agerraldiak aztertuko ditut. Aldaeren bilakaera hobeki nabarmentzeko azpialdaera bustiak eta ez bustiak batera hartuko ditut, hots, *eritxi* eta *eritzi*-ren emaitzak batu egingo ditut, eta orobat *iritxi* eta *iritzi*-renak. Horrela jokatuta grafiko hau dugu <sup>2</sup>:

<sup>2</sup> Grafikoari dagozkion zifrak hauek dira:

	eritxi	eritxi-eritzi	iritxi-iritzi	guztira
1800-1850	47 (54,0%)	34 (39,1%)	6 (6,9 %)	87
1850-1900	45 (63,4%)	11 (15,5%)	15 (21,1%)	71
1900-1950	99 (79,8%)	13 (10,5%)	12 (9,7%)	124
1950-1970	29 (33,0%)	26 (29,5%)	33 (37,5%)	88

Grafikotik bi ondorio nagusi atera daitezke. Batetik, *eritxi*-ren azken urteetako beheraldi nabarmena, eta *iritxi-iritzi*-ren goraldia epe berean. Bestetik, eta hau da orain gehien axola duena, bizkaierak ez zuela batasuna eratzen hasi zen unean zer eskaini, hitz honi dagokionez, euskara batuari.



### Nere-nire literatur tradizioan

Euskalki guztietako testu zaharretan *ni* izenordainaren «genitibo edutezko» deritzana *ene* da, Bizkaitik Zuberoara. Forma honek aldaera «indartu» bat zuen,

*neure*, Linchmann-Aresti legearen arabera agertzen zena (Sarasola, *Euskera* 1979, 431-446). Delako legea, *ene-neure* formei dagokionez, XVIIIgn. mendearen hasieratik aurrera ez dela literatur euskalkietan betetzen esan daiteke. Ondorioz, bizkaieraz izan ezik, *neure* aldaera desagertu edo egiten da, eta sartaldeko euskalkian *neu* izenordain berriaren genitibo bihurtzen da.

Aldaera ez indartua, hots, *ene*, ez da ezein euskalkitan galtzen. Nolanahi ere badirudi Iparraldeko testuetan gehiago erabiltzen dela Hegoaldekoetan baino, eta hauetan deikietan (*ene alaba maitea* eta kidekoak) eta hainbat formuletan (*Ai, ene!, ene, bada!* etab.) dirauela batez ere.

*Neure* aldaeraren ez erabiltzearekin batean *ne* agertzen hasten da. Lehen agerraldiak, L. Villasantek edizio kritikoa prestatu zuen *Baionako diozesako bigarren katixima* lapurterazkoan (1733) eta Irazusta gipuzkoarraren *Doktrina Kristiana*-n (1739) gertatzen dira. Ondoren, gipuzkera klasikoazko testuetan, Larramendi, Mendiburu eta Kardaberazgandik hasita, *ne* da forma ez markatua, gehien erabiltzen dena, eta *ene* «markatua», aurreko paragrafoan esan dugunez. Orobat gertatzen bide da goinafarrerazko testuetan Lizarraga Elkanokoaz gero, eta Baztangoetan. Iparraldean, lapurtarrez, *ene* eta *ne* baliokideak dira, antza, baina bigarrena gero eta gehiago erabiltzen delarik, batez ere XIXgn. mendearen erdialdetik aurrera.

Zuberoako egoera berezia da. Badirudi zuberotar euskalkiko testu zaharretan izenordainen genitiboak ez zuela forma indarturik, hots, badirudi *neure*, *heurre*, *gewre* formak ez zirela ezagutzen euskalki horretan, eta *ene*, *hire*, *gure...* erabiltzen zirela joskera guztietan. Horrela, *Les prières du Prone* liburuxkaren zuberocerazko argitalpenean (1676), *zeren sobera bekatü egin baitüt pensamentüz, hitzez eta obrax*: ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz (9 orr.), edo Belapeyren *Katixima labur*-ean (1696), eta partka itzagüzü gure bekatia hala nula gük partkazen baitütügü gure ogen egiler (41 orr.). Gero, Maisterren Kempis-en itzulpenetik (1757) hasita, *nihaur* forma erabiltzen da, baina hau *nihaur* izenondoaren genitiboa da, hots bizkaiera modernoko *neure*-ren baliokidea, eta ez *ene*-ren aldaera. Hortaz, badirudi *ne* formarik ez dela agertzen inoiz zuberotar euskalkiko testuetan. Ezta ere, noski, *nire*-rik.

Bizkaieraz, esan dugun bezala, *ene* eta *neure* agertzen dira testu zaharretan, eta badirudi Linchmann-Aresti legearen arabera gertatzen direla aldaerok. XVIIIgn. mendearen hasieran kontuak nahasiagoak agertzen dira. Badirudi, oro har, bi formak erabiltzen direla, baina hautaketa idazlearen aukera da. Bestalde badirudi *neure*, gero eta areago, *neu* izenordain berriaren genitibotzat hartzen dela. Gauzak horrela, *ene* «markatuaren» ondoan *nire* sortzen da. Aurkitu ditudan lehen adibideak XIXgn. mendeko lehen urtetakoak dira, hots, bizkaitar klasi-koenak. Harrez gero *nire* da bizkaierazko tradizioan —Bizkaiko bizkaieraz beder— *ni* izenordainaren genitiboaren berezko forma.

Mende honetan, eta batez ere gerra ondoko testuetan, bi gertaera kontrajari eman dira Hegoaldeko literatur tradizioan. Alde batetik, bizkaierazko idazle batzuen idazlanetan —Gandiagaren *Elorri*-n, Alzolagan, eta, noski, J. San Martin

eta T. Etxebarria eibartarren, gerra ondokoak aipatzeko—*nere* aldera aurki daiteke maiztasun nabarmenez. Bestetik, gipuzkerazko zenbait idazle *nire* erabiltzen hasten dira. Lehen gertaeraren arrazoia, Gandiaga eta Alzolagan bederen, bizkaierazko idazleek sortaldeko erak erabiltzeko agertu ohi duten joera da eskierki. Bigarrenarena labainkorragoa da *nere* iritiz, uste ustel batean hartzen baitu oinarri, forma erregularrak jatorragoak eta zaharragoak direlako ustean hain zuzen. Izan ere, kontuan hartzekoa da *nire*-ren loraldi hori *zagoz*, *gagoz* eta kidekoak hobesteko —Euskaltzaindiak zaude, gaude gomendatu zituen arte— Guipuzkoan gertatu zen joerarekin batera ematen dela.

Forma erregularrekiko lilura horrek erro zahar samarrak ditu gure artean. Adibidez, Ithurryk bere lapurterazko gramatikan «le biscaïen *nirea* serait préférable» (14 orr.) dio, *nerea*, *enea* eta *nerea* aipatzen dituenean. P.Lafitte (*Grammaire Basque* 90), urrutirago doa, «les formes *nire*, «de moi», et *nirekin*, «avec moi», sont archaïques», inongo frogarik aurkeztu gabe, dioenean. Izan ere, K. Mitxeleak 1964ean zioen bezala (*Sobre el pasado de la lengua vasca*, 75):

Para no citar más que una de las supersticiones corrientes entre nosotros, entre quienes hoy prefieren escribir *nire* «mi, mío», en vez de *nere*, no faltan quienes piensan que *nire* no es solamente «más correcto», sino también «más antiguo» que *nere*, puesto que su vocal tiene el apoyo del personal *ni* «yo». Esto puede parecer razonable, pero no es más que una suposición, que los documentos descartan radicalmente.

Kopuru-kontueta igoaz, *nere*-ren 12.440ren bat agerraldi daude Orotariko Euskal Hiztegia-ren corpusean; *nire*-renak 2.080ren bat dira. Zenbateko hauen balioa hobeki taxutzeko, esan dezadan *ene*-ren agerraldiak, 1545-1970 epean 9.600en bat direla corpus berean. Beste alde batetik, *Euskara idatziaren maiztasun-hiztegia*-n 1977ko testuetako 561 agerraldi jasotzen dira *nere*-renak eta 497 *nire*-renak. 497 agerraldi hauetatik 263 bizkaierazko testu dialektalei dagozkie, eta ez dago bakar bat Iparraldeko testuetan.

### Ondorio gisa

Euskara baturako *eritzi* aldaera proposatu zenean, hori zela forma zaharra eta bizkaieraz erabili dena aipatu zen. Ikusi ditugun datuen arabera, argi dago bizkaierazko aldaera jatorra *eretxi* dela, eta *iritzi*, *eritzi* adina, gutxienez, erabili dela bizkaieraz. Bestalde, inork ez du zalantzan jartzen *eretxi* edo *eritzi* baino zaharragoak direla: gauza jakina da gaur egun *i*-z hasten diren aditzen jatorrizko formek *e* bat zutela hasiera-bokaltzat. Baina *ebili* edo *ekusi* arkaikotzat hartzen direnez gero<sup>3</sup>, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko.

<sup>3</sup> Hain zuzen, *ekusi*-ren agerraldiak erabatohizkoak dira —bizkaierazkoak ere ez dira falta— Hegoaldean XIXgn. mendean, eta are XXgn. mendean aurki daitezke, F. Goñi-ren *Lurdesko gertaerak* liburuan adibidez.

*Nire*-ri dagokionez, berriz, begien bistakoa da aldaeraren bizkaitartasuna. Baina aldaera hori berria da, *nere* baino berriagoa, eta azken honek badu, gainera, beste abantaila bat: bizkaitarrak (eta zuberotarrak) izan ezik, gainerako euskaldun guztiak erabiltzen dutela. Hots, kontua *zaude / zagoz*-en antzekoa da, eta denok dakigu zein aldaeratarata makurtu zen Euskaltzaindia azken hauei buruz. Bada beste kontu bat *nere* dela eta hainbatetan aipatu dena: *neure* forma indartuaren aldaera dela. Hala izango da etimologiari dagokionez, baina ez funtzioari dagokionez. Izan ere ez dago, dakidanez, testu bakar bat *ene / nere* kontrastea agertzen denik, eta honek axola du, ez baitira falta literatur tradizioan —gipuzkerazkoan hain zuzen— *ire / ere* edo *gure / gere* kontrasteak, Linchmann-Aresti legearen arabekoak eta *hire-heure*, *gure-geure*-ren jarraitzaileak. Ildo honetatik badirudi *nere*, *ene*-ren baliokidea dela, ez inola ere *neure*-rena.